

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### GIZARTE POLITIKAK ADINEKOAK ETA HAURREN SAILA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 28an hartutako erabakiaren laburpena: 2020an informazioa, sentsibilizazioa, prebentzio eta gizarte sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntarioria xede duten jarduerak eta ekintzetarako dirulaguntza-deialdia egiten da horren bidez**

BDNS (Identif.): 499084

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>):

#### **Lehen. Onuradunak**

Deialdian elkarte, fundazio eta entitateek parte hartu ahalko dute, baldin eta honelako ekintzak egitea esanbidez jasota badaukate beren estatutuetako xedeetan: gizarte-prebentzioari eta -sustapenari loturiko ekintzak, edo zailtasun sozialeko egoeran dauden pertsonen elkartzuna adierazteko eta laguntzeko ekimen zuzenak egitea xede dutenak.

Orobat izan ahalko dira onuradun pertsona fisiko edo juridikoen elkarte publiko edo pribatuak, ondasun komunitateak, edo beste edozelako ekonomi unitate edo ondare bereziak, nortasun juridiko propiorik izan gabe ere dirulaguntza ematea dakarten proiektu edo jarduerak burutzeko gai badira.

Dirulaguntza eskatzen duten pertsonen edo entitateen Vitoria-Gasteizko udalerrian izan behar dute helbidea, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Horretaz gain, pertsona juridikoek Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian edo dena delako Erregistro Publikoan izena emanda egon behar dute, eta datuak eguneratuta eduki.

#### **Bigarrena. Helburua**

Vitoria-Gasteizen 2020an gizarte proiektuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak ematea.

#### **Hirugarrena. Oinarriak**

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 28an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdi honen ildotik ematen diren laguntzak Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuetako 11.11.2301.480.45 partidaren jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; gehienez 200.000,00 euro baliatu ahalko dira horretarako.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, oinarri hauei dagokien deialdiari buruzko laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliadunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 6an

*Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*  
**ROSA ANA URTARAN URTARAN**